2. mailako Hirigintza I. Ingurune fisikoa

UROLA ERDIKO ERDIGUNEAREN AZTERKETA FISIKO ETA URBANISTIKOA

2012ko uztaileko deialdi ezohikorako ariketa berezia

1.- Urola Erdiko erdigunearen errealitate fisikoa ikertu behar da emandako 1. PDFko eremuan, 1:25.000 eskalan, din A-3an. Hidrologia eta lurralde-morfologia dira aztertzeko gaiak: horretarako, hipsometria eta erliebea adieraziko dira, 2011-2012 ikasturteko 1. lauhilekoko lehen praktikan egin bezala.

2.- Urola Erdiko erdigunearen errealitate urbanistikoa ikertu behar da emandako 2. PDFko eremuan, 1:15.000 eskalan, din A-3an. Hurrengoak dira egitekoak:

- Udalerriz gaindiko sistema orokorrak nabarmendu (urdin argi koloreko lerroez ibai nagusiak eta hurrengo koloreko lerroez azpiegiturak: trenbideak —edo trenbideak izandakoak—, urdin ilunez; autobideak, morez; errepideak —nagusiak edo udalerriz gaindikoak, soilik—, beltzez).

- Gorri koloreko lerro batez hiri-lurzoruak mugatu (eta barnekoa leunki bete, planoko informazioa desitxuratu gabe).

- Laranja koloreko lerro batez lurzoru-urbanizagarriak —etorkizuneko balizko zabalpen-eremuak— mugatu (eta barnekoa leunki bete, planoaren informazioa desitxuratu gabe).

- Marroi koloreko lerro batez alde zaharrak mugatu (eta barnekoa leunki bete, planoaren informazioa desitxuratu gabe; gaur egun alde zaharrik ez badago, antzina zegoenaren hipotesi bat egin).

- Hori koloreko lerro batzuez udalerri bakoitzeko kale nagusiak nabarmendu (3 edo 4 gehienez).

Ariketa banaka izango da.

Ez ahaztu izen-abizenak, iparra, eskala, eskala grafikoa eta leiendak adieraztea.

Uztaileko azterketa teorikoaren hasieran emango da bukatuta.

Donostian, 2012ko urtarrilaren 30ean

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño